

Euskalingua 23

Aurkezpena

Irakurle on hori,

Euskalingua 23n sei artikulua dira irakurgai. Lehenengo hirurak fonetika laborategietatik datoz eta hizkuntzaren gaurko erabilera dabe aztergai; ahoskera, intonazioa eta azentua, hurrenez hurren. Holan bada, I. Gaminde, L. Unamuno, A. Iglesias eta L. Gandariasek hitzun gazte batzuegan gertatzen dabiren kontsonante afrikatuak ekoizpenaren aldaketa aztertu dabe. Bigarrenean, I. Gaminde, U. Garay, A. Etxebarria eta A. Romerok emozioak hizkuntzaren melodian eraginik daben aztertzeari ekin deutsee. Hirugarrenean, C. Matak Lezoko azentuaz jardun dau. Honek hiruror ondorengo egile biak idazleen lanak hartu ditue gaitzat; A. Ensunzak XVIII. mendeko Gandara eta Sor Luisa autore parearen Gabon Kantak ikertu ditu eta U. Goikoetxeak Gotzon Garate zenaren idazlanaren ganeko azken atala idatzi dau, *Euskalingua 21en* eta *Euskalingua 22n* argitaratutako artikuluen amaierakoa, hain zuzen. Seigarrenak Aholab Taldea, Elhuyar Fundazioa, IXA Taldea, Tecnalia eta Vicomtech-*IK4* erakundeetako hamar ikerlarik alkarlanean garatutako BerbaTek proiektuaren emaitzak aurkeztu ditu.

Iñaki Gaminde, Lorea Unamuno, Aitor Iglesias eta Leire Gandariasek kontsonante afrikatu biren ahoskeraren aldaketa fonetikoak aztertu dabe. Bizkaiko 11 herritako 11 hitzun dira ikergai, neskak, 20-28 urte bitartekoak, D ereduak ikasitakoak eta unibertsitate ikasketak euskeraz egin dituenak, batzuek euskera dabe ama hizkuntza eta beste batzuek ez. EUDIA Ikerketa Taldekoek /tʃ/ eta /tʂ/ kontsonanteen arteko mugak lausotzen hasita dauden susmoa baieztatzeko edo baztertzeko, ikerketa zehatzera jo dabe eta artikuluen emaitzetan erakusten da, hitzun guztiengan ez bada be, batzuegan aldaketa hori gauzatuta dagoela, hau da, hitzun batzuek ez dituela bi kontsonante afrikatuok bereizten eta /tʂ/ laminarra baino ez dabela ekoizten.

Iñaki Gaminde, Urtza Garay, Aintzane Etxebarria eta Asier Romerok *Oinarrizko emozioen melodiez* izenburuak dinoen moduan, poza, tristura eta haserrea emozioek intonazioan eraginik daben aztertzen dabe, oinarrizko maiztasunaren kurben azterketa fonetikoak abiapuntu hartu eta 115 informatzaile gazte, euskaldun elebidunen ahozko ekoizpenaren grabazioak neurtuta. Ondorioetan azaltzen daben moduan, oinarrizko maiztasunaren bidez sortzen dan melodia emozioak sailkatzeko irizpide garrantzitsua baina ez nahikoa dala dirudi.

Celia Matak *Lezoko azentua: herri-hizkera vs. herri-batuera* izenburuarekin, Lezoko hizkeraren azentua aztertzea dau helburu. Horretarako, hiru euskaldun zahar, estandarizazio prozesu aurrean zein berorren ondoren eskolatutakoak, eta euskaldun barri bat hartu ditu lekukotzat. Lehenengo hiru lekukoak jarduna aztertu eta azaldu dau banan-banan eta horren ondoren, hitzunon emaitzak konparatu ditu. Herri bereko biztanle izan arren, bakoitzaren azentua diferentea dala egiaztatu dau.

Ariane Ensunzak XVIII. mendeko *Gabon Kantak: Gandara eta Sor Luisa* izeneko artikuluan, autore bi honeen testuetako antzekotasunetan eta desbardintasunetan oinarrituta, garai hartako Gabon Kantak eta euron ezaugarriak lantzen ditu; Sor Luisa izenpean idazten dauan autorearen identifikazioaren zehazgabetasunetik hasita, autore bion Gabon Kanten metrikara artekoak aztertu ditu.

Udane Goikoetxeak *Gotzon Garate. Tradiziotik modernitate III* deritzon artikuluan, Gotzon Garateren pentsakeran eta lanean sakontzeko asmoz, haren idazlanetan tradizioa eta modernitatea kontzeptuak lantzen jardun dau. Autoreak Garate intelektual modernotzat jotzen dau, eta beronen azken lanetarikoa dan *Atsotitzak* izenekoaren aipamena da bereizgarri.

Aholab Taldeko Eva Navas eta Iñaki Sainz; Elhuyar Fundazioko Igor Leturia; IXA Taldeko Kepa Sarasola, Xabier Arregi eta Arantza Diaz de Ilarraza; Tecnaliako David Baranda eta Urtza Iturraspe eta Vicomtech-*IK4*ko Arantza del Pozo eta Aitor Alvarezek hiru urteko lankidetzan lortutako emaitzak aurkeztu ditue izenburu hau dauan artikuluan *Berbatek: euskararako hizkuntza teknologien garapena itzulpengintza, edukien kudeaketa eta irakaskuntza arloetan*.

Euskalingua 23ko artikuluan gaiei eta eurotatik jaso daitekeen informazioari interesgarri baizen baliagarri iritziko deutsezulakoan, hurrengo zenbakira arte agurtzen zaitut

Aulesti, 2013ko azaroak 27

Maribi Unamuno

Editorea

victoria.unamuno@ehu.es